

**2006KO ABENDUAREN 20AN, SASIETA MANKOMUNITATEKO BATZORDE
ERREKTOREAK EGINDAKO BILERA**

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar- Aretoa

EGUNA: Hogeia

HILABETEA: Abendua

URTEA: Bi mila eta sei

HASIERAKO ORDUA: Hemeretziak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

BILDUAK

Lehendakaria: Peio Garaialde Goikoexea, Beasaingo ordezkaria

Ordezkarriak Jasone Aranburu, Aramako ordezkaria
Rosa Goñi Jaca, Ataungo ordezkaria
Patxi Plazaola Muguruza, Beasaingo ordezkaria
Prudencio Mujika Albisu, Ezkio-Itsasoko ordezkaria
Felix Urkola Iriarte, Lazkaoko ordezkaria
Juan Ramón Larrañaga Mercero, Legazpiko ordezkaria
Vicente Garmendia Martinez, Legazpiko ordezkaria
Jose Mari Lasa Sarasola, Legorretako ordezkaria
Angel María Mujika Goya, Mutiloko ordezkaria
Txomin Mendoza Pérez, Olaberriko ordezkaria
Manuel Iturrioz Pérez, Ordiziako ordezkaria
Itziar Agirre Berriotxo, Urretxuko ordezkaria
Peio González Argomaniz, Urretxuko ordezkaria
Damian Garmendia Etxabe, Zaldibiako ordezkaria
Antonio Garcia Agirre, Zeraingo ordezkaria
Mikel Serrano Aperribay, Zumarragako ordezkaria

ETORRI GABEAK: Jose Mari Aranburu, Altzagako ordezkaria
Iñigo Izagirre Erauskin, Gabiriako ordezkaria
J. Ignacio Irastorza Garmendia, Gaintzako ordezkaria
Xabier Ariztimuño Iparragirre Idiazabalgo ordezkaria
Daniel Etxeberria Pascual, Itsasondoko ordezkaria
Kepa Goenaga Alikostes, Lazkaoko ordezkaria
Jose Luis Ormazabal Garmendia, Ordiziako ordezkaria

José Lorenzo Murua, Ormaiztegiko ordezkaria
Jon Agirre Aburuza, Segurako ordezkaria
Jon Ormazabal Berasategui, Zegamako ordezkaria
Fco. Javier Toquero Miguel, Zumarragako ordezkaria

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran parte hartzen du, ahotsarekin, baina botorik gabe, Iñaki Erauskin Urretabizkaia Sasieta Mankomunitateko zerbitzuburuak.

1.- AURREKO AKTA. 2006ko azaroaren 11an egindako bileraren aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- LEHENDAKARIAREN IZENDAPENA. Peio Garaialde jaunaren dimisioaren onespena eta lehendakari berri baten izendapena.

Ezagutzera eman da, Peio Garaialde lehendakariak dimisioa aurkeztu duela eta hori onartzea eta beste lehendakari berri bat izendatzea dagokiola.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Peio González Argómaniz, Urretxuko ordezkariak: “Ni ez naiz arrazoi pertsonaletan sartuko, baina gai honen inguruan, Batzar Errektorean planteatu den gatazkari duintasunezko irtenbidea emate arren nik ondorengo proposatzen dut:

1.- UDALHITZeko protokoloan aurreikusten den, “bitartekotza, interpretazio eta adiskidetze eta bitariko batzordera jotzea, hemen Udalhitz-en eranskinarekin sortu den arazoa konpontzeko.

2.- Peio Garaialde Goikoetxea jaunari eskatzea, lehendakaritzarako dimisioa bertan behera uzteko eta legealdia bukatzeko falta diren sei hilabeteetan, lehendakaria izaten jarraitzeko.

Txomin Mendoza Pérez, Olaberriko ordezkariak: “Azkeneko bileran ez nintzen oso sentazio onarekin atera. Bilera etortzen gara, baina gehienetan denok isilik egoten gara. Lehendakariari trabak jarri zaizkio, eta nik hemen jarrera desegokiak ikusi ditut. Alkate batzuei izugarria iruditu zaie Lehendakariak egin duena, baina ia denek udaletan Udalhitz hobetu egin dute eta hobetu ez dutenek, soldata-mailak handitu egin dituzte. Ez gara hain serioak. Niretzat larria da Peiok egin zuena, izan ere besteokin kontsultatu egin behar zuen, baina hortik denok esatea soilik Udalhitz onartu eta aplikatu behar dela...Nik Peio Garaialderi eskatzen diot ez dimititzeko, lan handia egiten ari delako.”

Felix Urkola Iriarte, Lazkaoko ordezkariak: “Lazkaori dagokionean behintzat ez da horrelakorik egin eta bakarrik Udalhitz onartu da. Egoera nahiko larria da eta nik koherentziaz jokatzeko ez diot Peiori jarraitzeko eskatzen, lehenago nik ere koherentzia horrexegatik dimititu egin nuen eta. Ez dakit zeintzuk diren Olaberriko ordezkariak aipatu dituen trabak. Bakoitzak geure erantzukizuna onartu behar dugu.”

Peio Garaialde Goikoetxea, lehendakariak: “Olaberriko ordezkariari eskerrak ematen dizkiot berak esandako hitzengatik. Nik aitortzen dut akatsak egin nituela. Inguruko udaletan Udalhitz-en inguruan negoziazioetara iristeak eragin zuen nik ere langileekin negoziatzea. Peio González Urretxuko ordezkariari ere eskertzen diot aurkeztu duen proposamena aurkeztea. Ni negoziazioaren alde nago eta Batzorde Errektoreak horrela nahi badu bitartekotza batzordeak erabakia hartu arte, funtzioetan jarraitzeko eragozpenik ez dut.”

Juan Ramón Larrañaga Mercero, Legazpiko ordezkariak: “Administrazioko kudeaketa konplikatu da. Ni liberatuta nago eta aitortu beharra daukat benetan meritu izugarria dutela udaletan liberatuta egon gabe lan egiten duten alkateek.

Guk eranskinak ez onartzeagatik, greba deialdia egitea iruditzen zait, xantaia egitea dela, baina egoera honetatik denok dugu zer ikasia. Udalhitzek berak baliabidea badu irtenbide bat emateko, erabili dezagun. Bitartekotza batzordea denez, bai langile, bai sindikatuek onartuko dutela iruditzen zait. Nik ere Peio Garaialderi eskatzen diot lehendakari lanetan jarraitzea. Hemen gertatutakoaren inguruan aurrera pausoak emateko, dimisio hori oztopo bat besterik ez da eta.”

Peio Garaialde lehendakariak: “Eskertzekoa da azaldu duzuen borondatea. Udalhitz-ek instrumentu hori aurreikusten badu, guk ez dugu zertan eztabaidatu beharrik. Batzorde horrek erabakia hartu dezala, guk eta langileak betetzeko.”

Manuel Iturrioz Pérez, Ordiziako ordezkariak: “Agian hemen esaten den guztiarekiko iritzi desberdinak daude. Ni ez naiz jabetu Lehendakariari trabak jarri izanaz. Norbait ohartu bada, aipatzea zuen, baina, berriro diot, nik ez dut horrelakorik ikusi. Ordizian, eranskin modura onartu dira, Udalhitz-en aurretik negoziatu eta onartutako baldintzak. Ni ere ados nago Peio Garaialderi lehendakaria izaten jarraitzeko eskaerarekin.”

Patxi Plazaola Muguruza, Beasaingo ordezkariak: “Funtzionamenduan akatsak izan direla onartzen dut, baina hortik esatea lehendakariari trabak jarri zaiola, akusazio gogorra da. Lehendakariak proposatutakoa, Batzar Errektoreak ez onartzea, ez du esan nahi trabak jartzea dela. Kanpotik begiratuta ematen du, hemen gertatutakoa talde politikoen arteko borroka dela, baina ez da horrela, zeren eta hartu diren erabakiak ordezkariak emandako iritzien ondorioak besterik ez dira izan. Ez dago kutsu politikorik.

Proposatu dena, denon ustetan irtenbide bat bada, ontzat ematen dut, Peio Garaialderi eskatzea dimisioa bertan behera uzteko.”

Peio Garaialde, lehendakariak: “Ni prest nago lana egiteko, baina badakizue langileen aurrean nire jarrera zein den.”

Legazpiko ordezkariak: “Denok onartu beharko genuke batzorde horrek esaten duena, zeren eta lehen ere garbi gelditu zen, eranskinak ez genituela onartu ez diru kopuruagatik, baizik eta filosofiagatik.”

Peio Garaialde, lehendakariak: “Babesa ez badut, utzi egingo dut.”

Ordiziako ordezkariak: “Jarrera horrek ez dit balio. ¿Akaso zure iritzia beti Batzar Errektorearen gainetik egon behar da?.

Legazpiko ordezkariak: “Garbi eduki behar ditugu zeintzuk diren Lehendakariaren eskuduntzak eta zeintzuk Batzar Errektorearenak.”

Peio González Argómaniz, Urretxuko ordezkariak: “Zure iritzia eta gurea desberdina da. Ematen du adin txikikoak garela. Askotan hartu da erreferentzi modura Beasaingo Udala, baina hemendik aurrera oso garbi mugatu behar dira, Beasaingo Udala eta Sasieta Mankomunitatea.

Bitartekotza batzordeak hartzen duen erabakia, denoi betetzea dagokigu, hau da, lehendakariari, Batzar Errektoreari, langileei eta sindikatuei.”

Ordiziako ordezkariak: “Estatutuek, sortuak izan zirenean zituzten helburuak betetzen ez badituzte, alda ditzagun. Azter dezagun zalantzan egon daitekeena eta gertatu dena ez dadila berriz inoiz gertatu. Gure eskuetan dagoena egin dezagun, hau guztia zuzentzeko.”

Olaberriko ordezkariak: “Jarri gaitzen Lehendakariaren lekuan. Zaila izango da langileei azaltzea, udalean onartutakoa ezin duela Sasietan onartu. Ezin da ez abstentzio jarrera ez aurkakoa botatzearena hartu, udalean gauza diferentea egin badu. Grebarena xantaia izango da, baina langileek eskatzen dutena ez badugu onartzen, ondorioak onartu beharrean gaude.”

Juan Ramón Larrañaga Merezero, Legazpiko ordezkariak: “Gatazkari irtenbidea emateko instrumentu bat badago, erabili dezagun. Grebaren deialdia ELAk egin du eta ELA izan zen Udalhitz sinatu zuen sindikatuetakoa bat, beraz ezin da ukatu.”

Patxi Plazaola Muguruza, Beasaingo ordezkariak: “Beasaingo Udalean eta Sasieta Mankomunitatean aplikatu diren irizpideak ez dira berdinak. Batean eta bestean prozesua ez da lineala eta paraleloa izan.”

Juan Ramón Larrañaga Mercero, Legazpiko ordezkariak: “Gipuzkoa mailan Sasietako profesionalak egiten duten lana errekonozituta dago, baina beste gauza bat, xehetasun ekonomikoak dira.”

Peio Garaialde lehendakariak: “Onartzen dut, bitartekotza batzordera jotzea Udalhitz eta honen eranskinaren inguruan sortu den gatazka konpontzeko eta bertan behera uzten dut, lehendakaria izaten ez jarraitzeko aurkeztutako dimisioa.”

Felix Urkola Iriarte, Lazkaoko ordezkariak: “Bakoitzak bere erantzukizunak onartu behar ditu”.

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 16
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 1

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. Udalhitz-en protokoloan aurreikusten den bitartekotza, interpretazio eta adiskidetze eta bitariko batzordeari eskatzea, Sasieta Mankomunitatean Udalhitz eta eranskinarekin sortu den arazoa aztertzeko eta irtenbide bat emateko.

Bigarren. Peio Garaialde Goikoetxea jaunak hitzez adierazitako, lehendakari izendapenari buruz aurkeztutako dimisioa bertan behera uztea, onartzea, Mankomunitateko lehendakaria jarraitzen izan dadin.

3.- AURREKONTUA. 2007. ekitaldirako ohiko aurrekontu proiektuaren eta aurrekontua gauzatzeko araua onesteko proposamena.

Ezagutzera ematen da 2007. ekitaldiko aurrekontuaren gastuen eta sarreraren egoera:

GASTUEN AURREKONTUA. KAPITULUKAKO LABURPENA		
Kap.	Izena	Euroak
I	Pertsonal-Gastuak	427,440
II	Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan	3,235,480
III	Finantza-Gastuak	67,010
IV	Transferentzia arruntak	0
VI	Inbertsio errealak	4,602,540
VII	Kapital-Transferentziak	0
VIII	Finantza-Aktiboak	1,782,210
IX	Finantza-Pasiboak	129,690
		10,244,370

SARREREN AURREKONTUA. KAPITULUKAKO LABURPENA		
Kap.	Izena	Euroak
I	Zuzeneko zergak	0
II	Zeharkako zergak	0
III	Tasak eta bestelako sarrerak	3,201,030
IV	Transferentzia arruntak	2,252,190
V	Ondare-Sarrerak	225,840
VI	Inbertsio Errealen Besterenganaketa	0
VII	Kapital-Transferentziak	0
VIII	Finantza-Aktiboak	2,122,000
IX	Finantza-Pasiboak	2,443,310
		10,244,370

Eta jarraian aurrekontua exekutatzeko arauak:.

" 1. artikulua.- AURREKONTU OROKORRAREN EDUKIA

Sasieta Mankomunitateko Aurrekontu Orokorra **10.244.370 eurotako** da. Sarrerak eta gastuak berdinak dira.

2. artikulua.- BERMEAK EMATEKO MUGA

Sasieta Mankomunitateak ezingo du abalik eman ezta edozein motatako bermerik hitzartu hirugarren aurrean.

3. artikulua.- ZORPETZE MUGA

Mankomunitateak, 2007 ekitaldian, epe luzera eginiko zorpetze eragiketen ondorioz sortutako zor bizi berriaren zenbateakoa, dokumentu bidez edozein modutara azalduta ere, 2007ko abenduaren 31n **2.443.310 eurotako** kopurua ezingo du inolaz ere gainditu.

4. artikulua.- KREDITUEN ERREGIMEN OROKORRA

Kredituen arteko binkulazio maila

Gastuetarako kredituak Aurrekontu Orokorrean eta ondoren, behar bezala onetsitako aldaketetan baimenduak izan diren xederako erabiliko dira soilik.

Mankomunitateko Aurrekontuan baimendutako kredituak izaera mugatzaile eta binkulantea izango dute, ondoren adierazitako binkulazio mailaren arabera:

- Kapituluak, perstonal gastuei dagokien gastuetan.
- Gastuen 3. eta 9. Kapituluak elkarrekin.
- Azpiprograma funtzionala (5 digitu) eta kapituluak, gastuen egoerako gaineratiko kapituluetan.

Handitu daitezkeen kredituak

Mankomunitateko gastuen aurrekontuko partida hauek handitu daitezke, bakoitzarentzat egokitzen den finantzaketaren arabera.

HANDITU DAITEZKEEN KREDITUAK -		FINANTZAKETA -	
PARTIDA	HASERAKO AURREKONTUA	PARTIDA	HASERAKO AURREKONTUA
226-442-12-03	36.180	396-442-12-03	20.750
		481-442-12-01	1.500
861-442-16-02	86.840	560-442-16-01	11.050
861-442-19-02	1.695.370	560-442-19-01	178.480

Onespena kredituen habilitazio espediente bidez egingo da eta onespena Lehendakarian egingo du.

5. artikulua.- KREDITUEN ALDAKETAREN ERREGIMENARI APLIKAGARRI ZAION ARAUDIA.

Aurrekontuko kredituak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-entitateen aurrekontuen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Araua ezarritakoaren arabera aldatu ahal izango dira.

Kreditu aldaketako proposamenei afektatutako programa funtzionala zein den eta egin behar diren ekimenetan zein lortu nahi diren helburuetan eragina zein den adierazi beharko dute, eta hala behar izanez gero, baita dagokien adierazleen zenbatekoa eta epealdia ere.

Espedienteak ondorengo ataletan araututako onespenerako izapideen eraginpean jarriko dira:

Kreditu habilitazioa

Aurrekontuaren sarreraren egoeran aurreikusi gabe lortutako sarrerek gastuen aurrekontu barruan kredituak sor ditzakete.

Habilitaziorako gai diren sarrerak 21/2003ko Foru Arauako 31.2 artikuluan ezarritakoak dira.

Lortutako sarrerak finalista izaera dutenean habilitazioa Mankomunitateko Lehendakariak onetsiko du eta gaineratiko kasuetan Batzorde Errektoreak.

Kreditu transferentzia

Urteko Aurrekontuan, Lehendakariak izango du transferentzia onesteko eskumena, transferentzia programa funtzional bereko partiden artean edota programa ezberdinen artean ematen denean, jatorriko programaren eta norakoaren arteko aldaketan bariazio metatua haseran aurrikusitako kontsignazioa %25ean gainditzen ez denean.

Edonola ere Batzorde Errektoreari dagokio inbertsio errealeko kontsignazioa gutxitzen duten transferentziak.

Kreditu gehigarriak

Ordainketa kreditua kontsignaturik ez duten gastuak egin behar badira edota egonda ere, nahiko izango ez balitz eta handitu ezina, orduan 21/2003ko Foru Arauko 34. artikuluan ezarritakora egokitu beharko da.

Mankomunitateko Lehendakariak onetsiko ditu kreditu gehigarriak, metatuta Aurrekontuan urteko %5eko igoera suposatzen ez dutenean.

6. artikulua. – GASTUAREN EXEKUZIOA

Gastuen Aurrekontuko gestioaren faseak

Mankomunitateko gastuko aurrekontuaren gestioa honako fase hauetan egingo da:

- a) Gastuaren baimena
- b) Gastuaren erabilera edo konpromezua
- c) Obligazioaren onarpena eta likidazioa
- d) Ordainketa agindua

Gastuen baimena eta erabilera

Urteko **12.000 euratakotako** kantitatea gainditzen duten elkarren artean homogeneous diren ondasun eta artikulutako gastuak baimentzeak eta erabiltzeak Mankomunitateko Kontuhartzaitzaren aurretiazko fiskalizazioa esijituko du, gastuen "B" (Baimena) eta "E" (Erabilera) fase kontableak kontabilizatuz.

Era beran, goian aipatutako zenbatekoa gainditzen duten eta egungo araudiaren arabera kontratazio prozesurik eskatzen ez duten gastuen kasutan, ahal izanez gero, eskaintza bat baino gehiago eskatuko dira.

Mankomunitateko Lehendakariari dagokio gastuen baimena eta erabilera ematea.

Obligazioen onarpena

Gastua behin fiskalizatu eta gero, Mankomunitateko Lehendakariari emango zaio dagokion onespina jasotzeko.

Ordainketa agindua

Mankomunitateko Lehendakariari dagokio ordainketa aginduen erlaziotan gauzatutako ekintza administratibo bidez, ordainketak agintzea.

7. artikulua. – PERTSONALARI AURRERAKINAK EMATEA

“Pertsonalari aurrerakinak emateko” kontusailtako kredituaren erabilgarritasunak, Arau honen barruan **I Eranskina** izenarekin jasotzen den “Langileei lehen etxebizitza erosteko eta kontsumorako maileguak emateko” Araudian xedatutakoaren arabera dagokion espedientea izapidatzea beharrezkoa izando da.

I ERANSKINA

SASIETA MANKOMUNITATEKO LANGILEEI LEHEN ETXEBIZITZA EROSTEKO ETA KONTSUMORAKO MAILEGUAK EMATEKO ARAUDIA.

I.- ATALBURUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. atala

Araudi honen helburua zera da: Sasieta Mankomunitateko langileei ohiko etxebizitza erosteko eta kontsumorako maileguak emateko arauak jartzea.

II. ATALBURUA. MAILEGUA JASOTZEKO ESKUBIDEA DUTEN LANGILEAK.

2. atala

Honako arau hauek, Sasieta Mankomunitatearen zerbitzu-jardunean ari diren langileei aplikagarri izango zaizkie, ondorengo izaera hauetakoren baten jabe izanez gero:

- a) Karrerako funtzionarioak.
- b) Lan Zuzenbidearen mendeko langile finkoak.
- c) Sasieta Mankomunitatean zerbitzuak prestatzen gutxienez urte bete era jarraikian egin duela egiaztatzen duten beste pertsona batzuek, aldez aurretik Lehendakaritzak egindako aldeko txostena izanda.
- d) Sasieta Mankomunitatean zerbitzuak prestatzen ari diren langileek eta aurretik aipatutako a), b) eta c) ataletan deskribatutako baldintzetako ezein ere ez dutenek, gehienera ere duten soldataren bi hilabeteko kopurua adinako kontsumo-mailegua hartzeko eskubidea izango dute, aldez aurretik Lehendakaritzak egindako aldeko txostena izanda.

III. ATALBURUA. KONTSUMO-MAILEGUA JASOTZEKO ESKUBIDEA EMATEN DUTEN BEHARRIZANEN SAILKAPENA.

3. atala

Ondorengo kasuak, kontsumoko mailegua jasotzeko eskubidea ematen duten eta agiri bidezko frogak behar dituzten beharrianak dira:

3.1. Istripuek edota gaixotasun larriek eragindako lesio, ondorio eta gastuetatik ondorioztatuak; zuzeneko familiako partaideren baten heriotza gorpuaren lekualdaketarekin. Gaixotasun-aseguruak estali gabeko mediku-gastuak, langileak berak edo ondorengo ahaidetasun-maila duten familiakoek izanak direnean:

- Ezkontideak edo udal-langilearekin bikote moduan urte bete baino gehiago bizi den bikotekideak, agiri bidez egoera hori egiaztatu ondoren.
- Seme-alabek.
- Gurasoek.

3.2.- Langilearen familiaren ohiko bizileku den etxebizitzaren kontra sortutako hipoteka-kredituen amortizazioak eta interesak.

3.3.- Ohiko etxebizitzaren zaharberritzea, altzariak barne.

3.4.- Langile eskatzaileak edo bere seme-alabek ikastetxe ofizialetan egindako ikasketen matrikulak edota egonaldiaren gastuak. Atal honen barruan sartzen dira halaber musika-tresnen erosketek eragindako gastuak ere.

3.5.- Trakzio mekanikodun ibilgailua erostea.

3.6. - Langilearen ezkontza.

3.7.- Seme-alaben jaiotza edo legezko adopzioa.

3.8.- Ezkontidearen edo seme-alaben heriotza.

3.9.- Langilearen dibortzioa, legezko banatzea edo ezkontzaren deuseztatpena.

3.10.- Ohiko etxebizitza Beasaina aldatzea.

3.11.- Kalifikazio hori merezi duten antzeko beste inguruabar batzuk.

IV.- ATALBURUA. KONTSUMORAKO MAILEGUEN BALDINTZA OROKORRAK, ZENBATEKOAK ETA ITZULTZEKO EPEAK.

4. Atala

Kontsumorako banakako maileguak jasotzeko eskubidea duten langileek, ondoren zehazten diren gehieneko zenbateko eta itzultze-epeak lortu ahal izango dituzte:

ZENBATEKOA	ITZULTZEKO EPEA
3.000 euro	20 hileko
6.000 euro	35 hileko
9.000 euro	50 hileko

Adierazitako kopuruak ez diren beste kopuru batzuetako maileguak emanaz gero, eta beti ere ezarritako gehienekoak baino handiagoak ez direla, itzultzeko erabiliko diren hilen kopurua, hileko 170 euro itzuliz ateratzen dena izango da.

Kontsumorako kreditu honen emakiden guztizkoa, urtean 1ekoa izango da kopururik handienak kontuan hartuta, eta eskaerak egindako ordena berean emango dira aurrekontuan izendatutako kopurua agortu arte.

Maileguaren zenbatekoa inoiz ere ez da izango sortu duen beharrianaren kopurua baino handiagoa.

Epeen arabera hileroko Itzuli beharreko zenbatekoak, hileroko deskontatutako dira esleipenak bereganatu dituztenen nominatik.

V.- ATALBURUA. OHIKO ETXEBIZITZA EROSTEKO MAILEGUAK.

5. atala

Ohiko etxebizitza erosteko maileguak jaso nahi dituzten langileek, ondoren zehazten diren gehieneko zenbateko eta itzultze-epeen araberrakoak lortu ahal izango dituzte:

ZENBATEKOA	ITZULTZEKO EPEA
25.000 euro	12 urte

Eskaera mota honi urte egiteko urtero izendatutako kopururik handiena, aipatutako zenbatekoen modulu batena izango da.

6. atala

Eska litezkeen betebeharrak:

a) Eskaeran adierazi egin behar da, etxebizitza ohiko bizilekutarako erosten dela eta salerosketa-kontratu, eskritura, eraikitzaera doan profesionalaren zerbitzu-errentamenduaren kontratu edo Arkitekto Elkargoak ikus-onetsitako obra-zuzendaritzaren azken ziurtagiri bidez zuri behar da.

b) Erosketa salerosketa-kontratu bidez zuzitzen denean, seinale moduan gutxienez ere adierazten den prezioaren % 5 ordaindu izana egiaztatu behar da eta interesatuak eskaeran adierazi egin behar du, mailegua jaso ondorengo urte beteko epean eskrituraren kopia aurkezteko konpromisoa hartzen duela.

c) Ohiko bizilekua dela egiaztatzeko, erroldatze-ziurtagiria eskatzeaz gainera, etxebizitzaren benetako okupazioaz egindako udal-txostena, helbide fiskala kreditatzen duen ziurtagiria, osasun-zerbitzuen esparruko helbide-egiaztapena edota gaia aztertu eta esleipenen txostena egiten duen batzordeak egoki iritzi eta eska lezakeen beste edozein agiri eskatu ahal izango da.

Eskaerak aurkezteko epea, gertakaria gertatu ondorengo datatik zenbatutako urtebetekoa izango da eta gertaera-data horretan beti ere eskatzaileak funtzionario- edo langile-harremana izan behar du. Epe hori, erosi behar den etxebizitza eraikitzen ari diren kasuan eta eraikuntza amaitu arte bakarrik luzatu ahal izango da.

Etxebizitza erosteko mailegua jasoz gero, ez da beste maileguen eskubiderik izango.

Lehendik kontsumorako mailegu bat eduki eta ohiko bizilekuarentzako beste bat eskatzen bada, etxebizitzarena emanaz gero kontsumorako mailegua deuseztatu egingo da.

Ohiko etxebizitza erosteko mailegua, gehienera ere behin bakarrik jaso ahal izango da, eta hori eskuratu duen langile onuradunak ez du berriz halakorik eskuratzeko eskubiderik izango.

Ohiko etxebizitza erosteko maileguarekin bateragarria den mailegu-eskubide bat badago "premiatzko beharizanen mailegu" dei genezakeena eta gehienera ere bi hilabeteko soldataren zenbatekoa duena. Mailegu hori inolako zuriketarik gabe eman ahal izango da emateko kreditua dagoenean eta lehentasuna izan dezaketen beste eskaera batzuk ez daudenean.

7. atala

Etxebizitza-mailegua emateko irizpideak:

Urtero mailegu bakarra eman daitekeenez, etxebizitza-mailegua jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten eskaera bat baino gehiago izanez gero, ondorengo atal hauetan punturik gehien lortzen dituen eskaerari emango zaio:

a) SOLDATA.

Urteko 25.000 € arte: 5 puntu.

25.001 €-tik 30.000 € arte: 4 puntu.

30.001 €-tik 35.000€ arte: 3 puntu.

35.001 €-tik aurrera: puntu 1.

b) MAILEGU ESKAERA ERAGIN DUEN ETXEBIZITZAREN BALIOA: Zenbat eta balio handiagoa izan etxebizitzak, orduan eta puntu gutxiago eskatutako mailegua esleitzeko.

150.000 € arte: 5 puntu.

150.001 €-tik 180.000 € arte: 4 puntu.

180.001 €-tik 210.000 € arte: 3 puntu.

210.001 €-tik aurrera: puntu 1.

c) DESBERDINKETA: Bi eskaerak edo gehiagok puntu-kopuru berbera lortzen badute, enpresan antzinasun handiena duen langilearen aldeko ebazpena emango da, eta hala ere berdintasuna gertatuko balitz, adin gehieneko langileari esleituiko zaio. Nolanahi ere, desberdinketarako beste irizpideren bat erabili ahal izango da, Batzordearen ustetan, hori gomendatzen duten inguruabarrak gertatzen direnean.

d) ITXARON ZERRENDA.- Mailegua jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten baina esleipenik izaten ez duten eskaerekin itxaron zerrenda bat eratuko da hurrengo ekitaldirako edo ekitaldietarako, eta 6 d) atalean ezarritako betebeharretik salbu geldituko dira.

VI.- ATALBURUA. ESKAERAK ETA DOKUMENTUAK.

8. atala

1.-Eskaerak Sasieta Mankomunitateko erregistroan aurkeztu beharko dira, eskaeraren zergatia frogatzeko adinako agiriak lagun dituztela: aurrekontuak, fakturak, etab., kontsumorako maileguak direnean eta araudi honen 6. atalean aipatzen diren agiriak ohiko etxebizitza erosteko eskaerak direnean.

2.- Ondorio horietarako frogagiritzat hartzen dira era guztietako agiri publiko guztiak eta baita BEZdun aurrekontuak eta fakturak ere, baina azken hauek urte beteko balioa izango dute.

9. atala

Mailegua aurrekontua aurkeztuta eman denean, aurrekontuari dagokion faktura, mailegua eman eta hurrengo egunetik zenbatutako 3 hileko epean ekarri beharko da.

3.2 atalean aurreikusitako hipoteka-kredituen amortizazio eta interesentzako maileguen kasuan, helburu hori duela emandako maileguaren zertarakoa hamabost eguneko epean egiaztatu beharko da.

10. atala

Mailegua eman eta ezarritako epearen barruan eskaeraren zergatia frogatzen duen agiria aurkezten ez bada, langilearen nominatik automatikoki deskontatuko da legezko gutxieneko soldataz gaindik kobratzen duen soldatari dagozkion atxikipeak aplikatuta gelditzen den zenbatekoa:

- *Bigarren lanbide-arteak soldata txikienaren zenbatekoa adinakoa den lehen kopuru erantsiari, 100eko 30.*
- *Hirugarren lanbide-arteak soldata txikienaren zenbatekoa adinakoa den kopuru erantsiari, 100eko 50.*
- *Gauza bera laugarren lanbide-arteak soldata txikienaren zenbatekoa adinakoa den kopurura arte, 100eko 60.*
- *Gauza bera bosgarren lanbide-arteak soldata txikienaren zenbatekoa adinakoa den kopurura arte, 100eko 75.*
- *Kopuru hori gainditzen duen edozein kopururen 100eko 90.*

11. artikulua

Maileguak ukatzeko arrazoen artean honako hauek daude: auzi-epaia dela eta, udal-langilearen nominan diru-atxikipea egiteko agindua dagoenean eta aurreko atalean deskribatutako eskalaren aplikazioaren emaitzak eskatutako maileguaren amortizazio-kuotei aurre egiteko behar adinako saldorik ez dagoenean.

12. atala

Mailegu bat eman ondoren jasotzaileari mailegua aurretiaz xedatu bezala itzultzea galaraziko dion zerbaitez gero (heriotza, aurretiazko erretiroa, gaitasun-ezagatiko erretiroa, eszedentzia, lan-harremana etetea), Udalak, ahal izanez gero, itzuli gabeko kopuru osoa aldi bakarrean kobratuko dio titularrari berari edo, bestela, bere ondorengoei, egokien eta komenigarrien jotzen duen moduan.

Gainera, etxebizitza erosteko mailegua emandako kasuan, mailegu-hartzaileak, emandako kreditua itzultzeko epearen barruan, zor dituen kopuruak itzultzea bermatuko duen poliza bat egin beharko du. Zehaztasun hori, esleipena jakinarazitako egunetik zenbatutako 7 eguneko epean egiaztatu beharko da, polizaren kopia bat eta dagokion ordainagiria aurkeztuta.

Aurreko zehaztasun hori bete ondoren, onartutako maileguaren diru-sarrerara egingo da. Urtero-urtero poliza horren prima ordaindu izana egiaztatu beharko da dagokion ordainagiria aurkeztuta.

13. atala

Hasiera batean, ohiko etxebizitzarentzako mailegu bat bakarrik eskatu ahal izango da, nola ezta, ezustean sortutako inguruabar aurreikusi-ezinak sortzen ez diren aldi berean beste mailegu bat ematea eragiteko.

14. atala

Zenbatekoak eta itzultzeko epeak hurrengo udal-hitzarmenetan adostu daitekeenaren arabera aldatu edo berrikus daitezke.

VII. ATALBURUA ESKAEREN AZTERKETA

15. atala.- BATZORDE TXOSTENGILEA

Eskaerak aztertzeko batzorde txostengilea, Kontuhartzaileak, Pertsonaleko Teknikariak eta Enpresa-batzordeko kide batek osatuko dute.

16. atala

Batzorde hori hilean behin bilduko da eskaerak daudenean eta eskera horiek kontsumorako maileguenak direnean. Aldiz, urtean behin bilduko da ohiko etxebizitza erosteko mailegu-eskaerak aztertzeko. Bilera egin aurretik beti ere bilera-deia egingo da urriaren lehen hamabostaldian eta data hartara arte aurkeztutako eskaera guztiak aztertuko ditu lehendik itxaron-zerrendan dauden eskaerekin batera.

17. atala

Aurreko atalean aurreikusitako bilera egin ondoren sartzen diren eskaera guztiak, hurrengo bileran aztertuko dira. Bilera hori, ohikotasunez, aurreko atalean bertan adierazitako datan egingo da.”

Aurrekontuaren inguruan, ondorengoak adierazi dira:

Iñaki Erauskin zerbitzuburuak: “2009. urtetik aurrera ezin izango da zabor gehiago zabortegian bota. Egiten ari garen fondoa ere 2007. urtean erabiltzen hasiko gara eta zabortegia behin betiko ixteko lehen fasea burutuko da. Esan bezala, 2009ko uztailean zabortegia itxiko da eta oraindik inork ez daki zehatz mehatz zaborrarekin zer gertatuko den 2013-2014 arte, hau da, errauskailua egin arte.

San Markos-eko zabortegia itxi egin behar dela eta, Mankomunitateok hitzarmen zirriborro bat prestatzen ari gara, Gipuzkoan geratzen diren hiru zabortegien (Sasieta, Lapatz eta Urteta) artean zaborrak banatzeko. Hitzarmen horren edukia Batzorde Errektore honek onartu beharko du eta seguraski hurrengo batzarraldian aurkeztuko da. Dena den, 2007ko aurrekontua San Marcos-eko itxierak ekarriko duen egoera berria kontutan eduki gabe prestatu da. Beraz, litekeena da kreditu-aldaketaren bat egin beharra izatea 2007ko lehen sei hilabetetan.

Felix Urkola Lazkaoko ordezkariak: "Aurrekontuetan pabiloia egitea aurreikusten da baina, gertatu al daiteke etorkizunean azpiegitura hori behar ez izatea, Kontsorzioa eratu behar delako?."

Iñaki Erauskin zerbitzuburuak: "Une honetan, azken 13 urteetan bezalaxe, zabor-bilketako kamioiak eta pertsonal guztia, Salbatore auzoko pabiloi batean daude baina pabiloia ez da mankomunitatearena, Gruas Garrorena baizik eta pabiloiaren alokairua oso garestia ateratzen da. Orain arte jarritako diruarekin pabiloi hau ordaindua legoke seguraski. Kudeaketaren ardura edo konpetentzia norena den alde batera utzita beti egongo da pabiloi baten beharra. Edonola ere, Kontsorzioa eratzeko eskuartean erabili diren estatutu zirriborro guztietan eta gai honen inguruan egin diren bileretan garbi geratu da udalek eta mankomunitateek "*gestión en baja*" deritzana izango dutela bere ardurapean, hau da, zabor-bilketa arrunta, bilketa selektibo guztiak, kanpainak, garbiguneak etab. eta Kontsorzioak aldiz "*gestión en alta*" deritzana, hau da, azpiegitura handiak: errauskailua, tratatamendu plantak, transferentzia estazioak... Beste modu batean esanda, zaborra mankomunitateek bilduko lukete eta ondoren transferentzia estazioan edota errauskailuan zuzenean deskargatu. Kontsorzioa aldiz, zaborra transferentzia estaziotik errauskailura garraiatu eta erretzeaz arduratuko litzateke".

Felix Urkola Lazkaoko ordezkariak: "Erabiltzen ez dugun fondo bat daukagu eta pabiloia egiteko mailegu bat eskatu behar dugu. Horrek interesak ordaintzea ekarriko du. Ezin al dugu fondo hori erabili?."

Iñaki Erauskin zerbitzuburuak: "Legeak ezarritakoaren arabera, ezinezkoa izango litzateke. Eusko Jaurlaritzak esan beharko digu hori egiterik daukagun ala ez. Kontuan izan behar da baita ere fondo hori ez dela bakarrik gurea, Tolosaldea eta Debagoienarena ere bai. Bestalde fondoa, 2007an erabiltzen hasiko gara, behin betiko itxierako lehen fasean, eta pabiloia ere 2007an eraikitzen hasiko gara. Ez dut uste bi inbertsio horiek diru iturri berekin finantzatu daitezkeenik. Dena dela, gaia aztertuko dugu."

Felix Urkola Lazkaoko ordezkariak: "Tasak kobratzea. Proposatzen da pertsona bat eta erdi behar dela, baina oraindik ez da zehaztu tasak kobratzeko emango den kudeaketa. Pertsona bat eta erdi gehiegi iruditzen zait, zeren eta orain dagoenaz gain beste estruktura bat muntatzea suposatuko luke. Lazkaon adibidez, zabor-errolda errebisatzeak gutxi gorabehera hiru aste eramaten ditu. Pentsatzen dut beste aukera batzuk ere egongo direla. Xehetasun horrekin ez nago ados."

Iñaki Erauskin zerbitzuburuak: "Aipatzen den pertsonal horrek ez du inongo estruktura iraunkorrik osatzen. Tasa bateratuen kobratzea egiteko, aldeztu aurretik prestaketa-lanak egin behar dira eta lan hori burutzeko, hain zuzen ere, proposatzen da langile bat eta erdi kontratatzea. Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako tasa-egiturak desberdinak dira. Herri batzuetan informazio oso ona dago eta beste batzuetan aldiz, dena dago goitik behera aztertu beharra. Zuzenean pertsonala kontratatu ordez hasierako lan hau neurri handi batean azpikontratatu ere egin daiteke. Nik proposatzen dut, gauzak ongi egiteko, Batzorde Exekutiboak gai hau bere gain hartzea, prozesu hau pausoz pauso nola burutu behar den zehazteko."

Hau dena egiteko ez daukagu denbora askorik. 2007ko irailean 2008ko tasak onartuta egon behar dute eta horretarako udara baino lehen egin beharko da lan guztia. Beraz, sei hilabete eskas ditugu”.

Felix Urkola Lazkaoko ordezkariak: “Nik esaten dudana da, tasen kobraketak azterketa sakona behar duela. Zer gertatuko litzateke, udalerrri batek nahi izango ez balu tasak Sasietak kobratzea? Lau urteetan %22ko igoera izan da. Hemen igoerak onartzen ditugu eta gero udaletan arazoak izaten ditugu igoerak aplikatzeko.”

Lehendakari jaunak: “Nik uste dut gai hau lehen ere behar adina tratatu dela egindako hainbat Batzorde Erreketetan eta orain ez dugula berriro eztabaidetan hasi behar.”

Juan Ramón Larrañaga, Legazpiko ordezkariak: “Niri iruditzen zait, ditugun sinergiak aprobetxatu behar ditugula eta agian hitzarmenak burutu behar ditugula beste erakunde batzuekin, bailaretan ditugun bulegoei etekina ateratzeko, adibidez, “Gipuzkoako Uren” bulegoak. Gure bailarako herritar batek kexa edo zalantzaren bat badu ez da oso egokia Sasieta Mankomunitateko bulegoetaraino joan beharra izatea.”

Patxi Plazaola, Beasaingo ordezkariak: “Proposatzen den pertsonalak hainbeste ordu sartu beharra izatea, zalantzan jartzen dut.”

Lehendakari jaunak: “Gure asmoa ez da pertsonal hori kontsolidatzea.”

Patxi Plazaola, Beasaingo ordezkariak: “Zabor gehiago etorri behar bada, kontutan izan beharko da, zein estruktura jarri behar den, kostua ere handiagoa izango da eta.”

Iñaki Erauskin zerbitzuburuak: “Zabortegean zabor gehiago onartzen badugu, beste bi edo hiru pertsona azpikontratatu beharko dira eta beste makina bat ere beharko dugu. Estruktura horren betebeharra, 2009an amaituko da, zabortegearen itxierarekin batera. Tasen kobraketa aldiz urtero egin behar da”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa eginda eta aho batez ondorengo erabakia hartu da:

Lehenik. 2007. ekitaldirako ohiko aurrekontu proiektuari eta aurrekontua gauzatzeko arauari hasierako onespena ematea.

Bigarren. Erabakia jendaurrean jartzea, GAO-n iragarkia argitaratuz, hamabost eguneko epean erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Erreklamaziorik ez bada, erabakia behin betikotzat onartua geldituko da.”

4.- PERTSONALA: 2007. ekitaldirako plantila organiko eta lanpostu-zerrendaren onespena.

Ezagutzera eman da, Sasieta Mankomunitateko 2007. urterako plantila eta lanpostuen zerrenda, 2006koaren berdina dela, langile kopuruari dagokionez. 2007. urteko plantila eta lanpostuen zerrendak honako hauek dira:

2007 URTEA				
SASIETA MANKOMUNITATEKO BATZORDE ERREKTOREAK 2006KO ABENDUAREN 20EAN EGINIKO BILKURAN, 2007RAKO ONETSI DUEN MANKOMUNITATEKO PLANTILA ORGANIKOA				
PERTSONAL LABORAL FINKOARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK				
LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KOPURUA	SAILKAPEN TALDEA	EGOERA	OHARRAK
Zerbitzuburua	1	B	Finkoa	Iraungitzear (1)
Makinari-langileburua	1	E	Finkoa	
Makinaria	1	E	Finkoa	
Lan anitzetako peoia	1	E		(2)
Mantenimendu langilea	1	E		(2)

- (1) Iraungitzear, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 19. artikulua araututakoaren arabera, lanpostu hau funtzionarioentzat gordeta egon beharko lukeelako.
- (2) Denboraldi baterako pertsonal laboralarekin okupatua

2007 URTEA				
SASIETA MANKOMUNITATEKO BATZORDE ERREKTOREAK 2006KO ABENDUAREN 20AN EGINIKO BILKURAN, 2007RAKO ONETSI DUEN MANKOMUNITATEKO PLANTILA ORGANIKOA				
PERTSONAL FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK				
LANPOSTUAREN IZENA	LANPOSTU KOPURUA	SAILKAPEN TALDEA	EGOERA	OHARRAK
		6/1989 Legea 43. art.		
Ingurugiro Teknikaria	1	B		(1)
Administraria	1	C		(1)

- (1) Gaur egun pertsonal laboralarekin betea.

2.007 URTEA

SASIETA MANKOMUNITATEKO BATZORDE ERREKTOREAK, 2006KO ABENDUAREN 20AN EGINIKO BILKURAN, 2007 EKITALDIRAKO ONETSI DUEN MANKOMUNITATEKO LANPOSTUEN ZERRENDA

PERTSONAL LABORAL FINKOARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

Ordenezkia.	Deitura	Lanpostu kopurua	Hornitzeko era	Sailkapen taldea	Arduraldia	Saila	Lanpostu horretarako esijitutako betebeharrak					Oharrak	
							Adskripzioa			Hizkuntz eskakizuna			Esijitutako titulazioa
							Taldea edo eskala (1)	Azpieskala (2)	Mota (3)	Koefizientea	Derrogorrezkotatun data		
1	Zerbitzuburua	1	-	B	% 100	Bulego Teknikoa	A.B.	Z.B.	E.T.	4	93/06/01	Erdi Mailako Teknikaria	Iraungi tzear (4)
2	Makinari-langileburua	1	-	E	% 100	Zaborteia	A.B.	Z.B.	O.P.	2	92/03/23	Eskola Ziurtagiria	
3	Makinaria	1	-	E	% 100	Zaborteia	A.B.	Z.B.	O.P.	2	92/03/23	Eskola Ziurtagiria	
4	Lan anitzetako peoia	1	Oposizio-Lehiaketa	E	% 100	Zaborteia	A.B.	Z.B.	O.P.	2	00/04/18	Eskola Ziurtagiria	
5	Mantenimendu langilea	1	Oposizio-Lehiaketa	E	% 100	Garbigunea	A.B.	Z.B.	O.P.	2	97/03/05	Eskola Ziurtagiria	

(3) A.B.= Administrazio Berezia; A.O.= Administrazio Orokorra

(4) Z.B.= Zerbitzu Bereziak; A.A.= Administrazio Orokorreko Administrazioa

(5) E.T.= Erdi Mailako Teknikaria; T.L.= Teknikari Laguntzailea; O.P.= Ofizioko Pertsonala

(6) Iraungitzeaz, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen 19. artikulua araututakoaren arabera, lanpostu hau funtzionarioentzat gordeta egon beharko lukeelako.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

5.- INFORMAZIOA: Mankomunitateko langileen mugagabeko greba deialdia.

Gai-zerrendako bigarren puntuan onartutakoa kontutan izan ondoren, gai hau mahai gainean gelditu da.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK. Eskari eta galderetan ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko bederatzia eta hamarretan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.